

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 254. zenbakia. 2017ko martxo



**Izaro
mallabitarra
Ermuan
berbetan**

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

ITTURRI

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hortz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hileroko hileroko etxeko buzoian jasoko duzu.

Ugaro
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eskusibook:

Allianz 
Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amala Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Lorena Ottero.

LAGUNTZAILEAK:

Asier Ibaibarriaga,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza,
Nahia Rojo eta
Uni Eibar-Ermua.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti,
Amala Arginzoniz,
Eneritz Arriaga,
Artarrai Mendi Taldea,
Paul Bustindui,
Ainhoa Garitagoitia,
Eider Gisasola,
Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga, Lobiano
Gastronomía Elkartea,
Valentin Mugarza,
Noticias de Gipuzkoa,
Aitor Ogiza, Ana Ugarte,
Uni Eibar-Ermua
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Amala
Arrondo eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Dantzan egizu (Entzuteko: www.alboka.es)

Dantzan egizu
Miren Miren,
dantzan egizu
zuk badakizu.

Dantzan egizu
Unai Unai,
dantzan egizu
zuk badakizu.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4

Ainhoa Garitagoitia (Ingalaterra)

ELKARRIZKETA5-7

Ana Ugarte, boluntarioa Atenasen

MALLABIAN ZER?8-9

Orraitio Elkartea *standby* egoeran

MOTZEAN10

Euskal Birusaren Batzar Orkorra

ERMUAN ZER?11-15

Berbetan Jardunaldiak, XX. Korrika,
IGO eta Aner Gorrotxategi

BOTEPRONTOAN16

Ana Larrondo

ESKOLEN TXOKOA17

Uni Eibar-Ermuko berriak

IRITZIA18

Fidelitasun eza bikote harremanetan

ZORION-AGURRAK19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA21

Ermuan botiloia egiten da?

APIRILEKO AGENDA22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Ainhoa Garitagoitia

2016ko uztailean heldu zen mallabitar gazte hau Liverpoolera. Au pair moduen lanera joan zen, familia bateko bi neskato zaintzera. Oraindik gaztea den arren, ez du bere burua ikusten berriro Mallabian. Liverpooleen? Batek daki!

- Erabaki erraza izan zen Mallabia uztea?

Erabaki erreza izen zan, gehixen bat denpora askuen pentsaute nekolako au pair moduen kanpora juetie, baina jueteko ordue heldu ahala gerua ta idea txarraue begittantzen jatan...!

- Nola imajinatzen zenuen leku hura? Aurreiritzirik bazenuen?

Ez nakixen asko Liverpooli buruz. Ingalaterran aurretik bizi izen naz, eta ordun ez neutsen buelta askorik emon. Hirixe bera haundixau izengo zala pentsatzen naben, egixe esan oso txikixe da... Baiña gehixen txokau deustena lan asuntue da. Hemen langile gehixenek flexibilitade gehixa deukie hor baiño, bai ordutegixen, bai jai hartzeko orduen. Eta askoz lan gehixa dau.

- Ondo moldatzen zara ingelesarekin?

Nahiko ondo menderatzen naben hona etorri aurretik be, baina esan bihera dau Liverpooleko azentue oso zaille dala ulertzeko. *Scouse* deitzen deusie



eurek, eta batez be pertsona nagusixei ulertzeko oso zaille da...

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Gauza asko: familixie, lagunek, janarixe, parrandak... Kanpora juen arte apreziatzen ez dien gauzak, gehixen bat. Adibidez, hemen juergak egunero dauz, izen astelehen edo bariku, baina oso diferentie da musikie, edarixe, ambientie... Gustora hartuko neuke kalimotxo edar bat lagunekin txosna baten! Edo bariku arratsalde baten lagunekin mosto bat azeitunakin. Baitte domekan, zapatu gabeko ajiaz juten zaien familiarteko bazkari bat.

- Nolako da zure egun arrunt bat?

Familia baten bizi naz, eta bertako neskatuek zaintzen duaz. Goxien eskolarako preparau, eta gero eurek eskolan dauzela nik denpora librie eukitten dot: ikesi (ingeleseko Advanced titulue ataratzeko asmotan nabil), ginasiora juen edo lo eitten dot. Gero nes-

katuen bille juen, eta arratsaldie eurekin pasatzen dot. Illuntzixen lagunekin trago bat hartu edo zinera jueten naz. Asteburuek niretzat dekuaz, eta lagunekin geratzen naz, kafe bat hartzeko, edo juergan urtetzeko.

- Noiz egon zara Mallabian azken aldiz?

Gabonetan. Baina aurretik be beste pare bat bider bueltau izen naz. Behin abuztuen (Andra Marixetan, zelan ez!), eta beste behin abendu hasieran. Uztaiera arte ez naz bueltauko, ohittu naz hemen egoten, eta gustora nau, ezteko hasieran besteko gogue bueltatzeko.

- Mallabira bizitzera bueltatuko zarela uste duzu.

Jo, ba eztaikit... Ondiño gaztie naz baietz edo ezetz erantzuteko, baina ez dot uste Mallabin biziko nazenik, egixe esan. Hona etorri nintzenien esaten naben hemen enintzela biziko, baiña oin iguel ez neuke ezetzik esango...

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Ana Ugarte, boluntarioa Atenasen:

“Bidaia honek asebate nau eta urtero-edo zerbaitetan lagundu nahi dut”

Ile-apaindegiko artazi eta produktuak hartuta, Atenaserako hegazkina hartu zuen Ana Ugarte ermuarrak otsailean. Tijeras Solidarias GKEarekin batera, bertako *squat*etan aritu da errefuxiatu ilegalei ilea mozten eta higienizatzen, bizipoz urriko errealitatean, ahalik eta duintasun handienarekin bizi daitezen. “Errefuxiatu askori larruarras mozten diete ilea, kontzentrazio-esparru batean egongo balira bezala –dio Anak–. Guk, apaintzeaz gain, errutinatik atera eta alaitasuna eraman diegu”. Tijeras Solidarias duela urtebete baino gutxiago sortu zen, Saúl Sancho ile-apaintzaile katalanaren ekimen pertsonalaz, eta etorkizun itzela duela aitortu du Ugartek.

- Zer dela eta bururatu zitzazun Atenasera joatea?

Betidanik izan dut buruan zerbaitetan lagundu behar nuela, baina ez dut inoiz pausurik eman. Duela gutxi, egun lasaia genuen ile-apaindegian, eta aldizkari bat esku artean nuela Tijeras Solidarias GKEaren berri jakin nuen. Momentu berean deitu nuen, eta proiektuaren gorabeherak azaldu zizkidaten. Polita iruditu zitzaidan, eta probatzeko gooa sortu zitzaidan.

- Askok pentsatu barik abiatu zinen...

Bai, baina eguna hurbiltzen zen heinean urduritzen hasi nintzen. Azaldu zidaten zein egunetan bidaiatu behar genuen, eta bidaiari ordaintzeko kontu batean sartu behar nuela dirua. Momentu batean pentsatu nuen: "Ez da adarjotzea izango?" Baina, tira, adarra jotzen ari baziren, zer egingo nuen ba, aurrera!

- Zenbat lagun joan zintzen?

Estatu guztiko 14 ile-apaintzaile: 7 neska eta 7 mutil. Hotel xume batean egon ginen, eta lan egiteko auzo marginaletara joaten ginen.

- Euren kanpamentuak dauden lekura...

Beno, gu ez ginen kanpamentuetara joan. Errefuxiatu legalak eta ilegalak bereizita daude: lehenak, kanpamentu

militarizatueta daude, eta ez ziguten eman baimenik hara sartzeko; bigarrenak, aldiz, *squat*etan bizi dira, hau da, eraikin okupatueta. Auzo marginaletan hutsik dauden eskolak, hotelak eta bestelako eraikuntzak okupatu dituzte, eta leku horietan jardun genuen guk.

- Zeren arabera joaten dira errefuxiatuak kanpamentu legalak edo ilegalak?

Greziak onartu dituen errefuxiatuak kanpamentu legalak doaz, eta han egoera hobea dute: janaria, babes... Izan ere, Europak diru kopurua ordaintzen dio Greziari pertsona eta egun bakoitzeko, beraz, Greziari interesatzen zaio eurak bertan egotea. Herrialde bakoitzak esaten duenean zenbat errefuxiatu onartuko dituen (egunen batean esaten badute!), haiak joango dira. Ilegalak, aldiz, pateratan heltzen dira, eta arratoiak bezala sartzten dira Grezian. Kontua zein da? Legalek ezin dutela ihes egin, kontrolatuta baitaude; ilegalak, aldiz, modu topatzen badute, hanka egin dezakete, inork ez daramalako haien erregistrorik.

- Squatetan arazo barik sar daiteke edonor?

Ez, ez dira edozeinekin fidatzen, jende asko dutelako kontra (neonaziak, esaterako). Horregatik, aurreko egunean aurkeztu egin be-



har duzu zure burua, ondo azaldu zer egin nahi duzun...

- Eta nori azaltzen zieten hau guztia, squatean zegoen edozeini edo arduradunen bat zegoen?

Eraikin hauetan hierarkia moduko bat dute. Okupatutako hotel batean egon ginen, esaterako, eta harrera martxan zegoen: sartzetarako datuak eman behar genituen, nora gindoazen azaldu, noiz joaten ginen begiratzen zuten... Kontrol zorrotza zeramatena, errefuxiatu gehiago edota behar tsuak sartu ez zitezela baita ere. Kontuan izan hotel batean agian 400 errefuxiatu bizi daitezkeela.

- Baimena lortuta, lanean hasten zintzen...

Bai, bakoitzak gure tresnak eraman genituen, eta gela batean, edo kalean bertan jendea hurbiltzen zitzaigun ilea mozteko, bizarra egiteko..., eta eskatu ere eskatzen zuten: "Ni Ronaldo bezala", batzuk. Euren ingeles apur bat dakite, eta bestela itzultzaile modukoren bat izaten zuten, eta hari azaltzen zioten zer nahi zuten.

- Gizonezkoak bakarrik apaindu zenituzten?

Ez, zorrienez 7 emakume joan ginen, eta guk gizonezkoek zein emakumezkoek moztu diezaiekegu ilea. Emakumeak bigarren mailakotzat dituzte bertan, eta oso pozik zetozen guregana. Gela berezi batean egoten ginen eurekin, tinte pilo bat eraman genituen, eta guztiek nahi zuten ilehoria! Nahiz eta zapia eraman, kendu egiten dute emakumeentzako espazioetan, eta ilea apainduta eramatea gustatzen zaie.

- Zein adineko jendea zen?

Ume asko, eta gazteak batez ere, 50 urtetik beherakoak. Baina bertan denetik dago: familia osoak, euren familiarekin ez dauden umeak, umeak beste herrialde batean dituzten gurasoak... Gainera, mota guztietako jendea da, zu eta ni bezalakoak. Siria Espainia bezalako herrialdea zen, bizimodu arrunta zuten: euren karre- ra, lana, eskolak, tabernak, afaltzera joaten ziren... Orain ez dute ezer, dena galdu dute: identitatea, fami-

"Squatetan hierarkia moduko bat dute, eta sartzten direnen kontrol zorrotza daramate"






SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

lia..., eta han daude, ez dakit zeren esperoan.

- **Egoera gogorra, beraz.**

Oso gogorra. Eta bihar 12 falta badira, inork ez du galdetuko non dauden. Ez dute ezer balio, hutsaren hurrengo dira.

- **Zeintzuk sentsazio izan dituzue bertan? Poza?**

Bai, gauza polita egiten ari zarela ikusten duzulako. Heldu ginenean hango batek esan zigun: "Eskerrak etorri zareten, zeren oso giro tristea zegoen". Han daudenek ez daukate zereginik, asperuta daude, eta gu heltzea jaitzat hartu zuten: jende piloa etorri zen, ume guztiak gure inguruan jolasten... Haiegi eguna alaitzeko gai izateak asebetetzen du. Hala ere, konturatu nintzen bat-batean euren munduan sartzen zirenean, euren eroitzapenetan, oso goibel

jartzen zirela. Haien begirada mortala zen!

- **Beldurra?**

Beldurra ez, elkarrekin egon ginelako denbora guztian. Joan aurretik ere galdetu egin nuen, eta antolatzailak esan zidan bere seme-alabak eta emaztea eraman behar zituela. Oso leku segurua zela.

- **Negargura?**

Ez, taldean ibili nintzelako denbora guztian. Ez nuen errefuxiatuengan modu pertsonalean larregi hurbildu nahi.

- **Nola baloratzen duzu esperientzia?**

Oso positiboa izan da, pentsamoldea zabaldu dit. Ikusi dut pertsona arruntak direla, guda batetik ihesi dabiltzanak, eta guri ere gertatu dakigukeela. Emakume batek kontatu zigun erosketak egitera irten zela,

"Ez nuen zabaldu nahi, baina bidaiak ohiartzunik ez badu, proiektuak ez du funtzionatuko"

eta bitartean bere etxean bonba batek eztanda egin zuela. Senarra eta bi seme-alaba hil zituen; beste bi seme-alaba eskolan zeuden, eta egun Alemanian daude. Bera Atenasen dago, itxaroten, bakarrik.

- **Hilabete inguru daramazu hemen. Hango errealtateak duzu oraindik buruan?**

Egia da hona etortzean zure errutinan sartzen zarela, ezin zara ardura horrekin bizi, zeren bestela bizitza galtzen duzu. Baina esperientziak asebeste nau. Eta hori da ideia: ez ahaztea, gogoratzea zenbat gauza gertatzen diren eta zenbat jende dagoen ezer barik.

- **Bueltatuko zara?**

Ez dakit bertara joango naizen edo beste leku batera. Argi daukat hau nire lehen esperientzia izan dela, eta hemendik aurrera, urtero-edo, zerbaitetan lagundu nahi dut, azkenean dena ez delako dirua irabaztea. Beharbada hemen bertan, aditasun-urritasunak dituztenei

edo desgaituei laguntzen. Edo kanpoan. Datorren urtean Indiara doazen bi neska ezagutu ditut, eta abisatzeko esan diet, ez dakit joango naizen.

- **Esperientzia berezia izan arren, zure bidaiak honek ez du herrian oihartzun handirik izan, ezta?**

Ez. Senarrari esan nion, amari, eta lankideei, baina guztiei eskatu nien ez kontatzeko. Nire gauza zen. Ez nuen zabaldu nahi lotsa ematen zidalako, eta ez nuen zeresanik eman nahi: ez zitzaidan axola inoren iritzia. Baina gero konturatu naiz nirekin joan diren beste batzuk publizitatea egin zutela joan aurretik, eta material mordoa jaso zutela hangoei eramateko. Ni esku hutsik joan nintzen, eta horrek ere larritu ninduen: "Ez duzu ezer ekarri, baina zu etorri zara. Ez da gutxi!", esan zidaten bidelagunek. Eta aitortu zidaten, honek oihartzunik ez badauka ez duela funtzionatzen.

Dorleta Vidal



AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

Hamburguesería TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

MUGA

KIKOJAK

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

Orraittio, urteetan Mallabiko euskara sustatu duen elkarte

11 urteko ibilbide oparoaren ostean, bi urte daramatza *standby* egoeran Orraittiok. Bertso saioak, mendi eta iturri irteerak, txondorra, eta euskara ondarearen aldeko liburu eta proiektuak gauzatzeaz arduratu izan da, baina 2015ean pertsiana bota zuen. Gazteen errelebo falta egon den arren, oraindik ere nahi duenak zabalik du elkarte berpizteko aukera.

2004an sortua, Mikel Zarate abade eta euskaltzalearen omenez egina, Orraittio elkarteak hamarkada bat eman du herriko euskararen alde lanean. Urteetan euskararen aldeko proiektu tinko bat egitea zen hasierako ideia. Ondoko herrietan Mallabiko euskara beti izan da erreferentea. Hori jasotzen duen liburua egiten Pello Mugarza ibili zen, eta proiektu hori aurrera ateratzeko elkarte baten beharra zegoen. Ermuan Euskal Birusa, Eibarrren ...eta Kitto! eta bestelako euskara elkarteak bazeuden, eta Mallabiak ere halako baten beharra zeukan. Telebista bat sortzeko proiektua ere egon zen, Debabarreneko herri guztien artean eta horretarako elkartearen arte-

an kooperatiba bat egin nahi zuten. Azkenean ez zen aurrera atera. Eneritz Aranburu elkarteko kidea hasieratik murgildu zen ekimenean: "Hasieran askorentzat arraroa zen Mallabia bezalako herri batean euskara elkarte bat, baina ekitaldi kulturak dinamizatzeko beharrezkoa zen taldea". "Bertako komunikabideak sortzeko diruarekin jarri zuen Udalak martxan elkarte. Horrela hasi ginen Orraittio eta 11 urte inguruan hainbat gauza egin ditugu; Corpus aldetik Pelloren liburua, euskalkia zaintzeko kolaborazioak, Aho-tsak ekimenarekin batera herriko hiztun nagusienekin grabazioak eta bestelakoak", dio Itziar Garitagoitia kultur zinegotziak eta elkarteko kideak.

Elkartearen helburuetako




ba da euskara erabiltzeko ekintzak sustatzea. Herrian antolatzen ziren 10 gauzetatik 9 euskaraz izan arren, komenigarria zen dinamika bat ezartzea. "Inoiz gertatu izan zaigu udaletxetik ekintza bat antolatzea eta elkarteak beste bat eta horiek bata besteari onurarik ez egitea, baina beste ekimenekin elkarlanean tinko aritu izan da Orraittio", adierazi du Garitagoitia.

Euskaldunak batzea eta hizkuntzaren erabilera handitzera bideratuta zegoen Orraittio. Herri handiagotako ereduak Mallabira ekartzeari ez zen gauza makala. Pello Mugarzaren Mallabiko euskara liburuaren proiektua aurrera atera zen elkartearen laguntzarekin, bertako euskararen gordekina bihurtuz.

Ekitaldien artean bertso jaialdi bat sortu zen, baina ez zuten asmatu dataekin. Hainbat saio egin ziren baina jendeari gerturatzea kostatzen zitzaion. "Ahalegindu ginen Aste Santu bueltan eta udan egiten baina oso zaila zen asmatzea bertso saioek egutegi jakin bat dutelako eta bertan leku bat egitea

ez da erreza", dio kultur zinegotziak.

Bestalde, Justo Azagirrek koordinaturik, ibilbide batzuk ere egin ziren Mallabia ezagutzeko. Asmoa jendea elkartzea zen ermita edo iturri horietako informazioa jasoz eta euskara sustatuz. Ibilbidearen ostean bazkari bat egiten zen, beti ere giro euskaldunean. Gabon batzuetan ere Herriko tabernarekin elkarlanean txondor bat egin zen Olentzerok ikatza zelan egingo lukeen azaltzeko. "Justok hainbat ekitaldi prestatu eta egin zituen Orraittioren mesedetan, elkarteari asko eman zion pertsona izan zen", dio Garitagoitia kultur zinegotziak.



"Kontzientzia linguistikoa apala dago gazteen artean"

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

Mallabian herriaren gehiengoak euskara dakien arren, erabilerak behera egin du. “Motibazio falta handia dago gazteen artean, kontzientzia linguistiko apala dago”, dio Itziar Garitagoitiak. Hainbat faktorek eragin dute Mallabiko euskararen erabileraren aldaketa horretan. Eskolako belaunaldi berrietan lehen gertatzen ez zen fenomeno piztu da. Erderaren aldeko joera nagusia da, gehienbat. “Jendek hausnarketa sakona egin behar du honen inguruan, herri euskaldun bat izan gara beti eta min handia egin hasia da erdara”, dio Aranburuk. Eskolaren esku

“2015a geroztik elkarteak ekintzak egiteari utzi zion”

dago hizkuntzaren transmisioa, baina erabilerari dagokionez, erreflexioaren aldeko apustua egin dute beti Orraittionez. Egoerak beldurtu egiten du Eneritz Aranburu: “Herriko %80k euskara dakien arren %20k baino ez du erabiltzen, benetan larritzekoa da”. Euskara elkarteak herriko beste elkarteetara hizkuntzaren kutsua utzi die. “Elkarte eta instituzioek oso barneratuta dute euskararen erabilera, arazoa, ordea,

umeen joera berrietan dago”, dio Aranburuk.

2015a geroztik elkarteak ekintzak egiteari utzi zion. Laupabost pertsona soilik geratzen ziren bertan, eta oso zaila zen elkartearekin aurrera jarraitzea. Itziar Garitagoitiarentzat zikloa bukatuta zegoen: “Inor liberatuta ez dagoen elkarte batean lan asko egin behar da guztien artean, eta horrek belaunaldi gazteak ekimenera gehitzea eskatzen du”. Gazteekin ongi konektatu ez izateaz damutzen dira elkarteko bi kideak, horien hauspoa beharrezkoa baitzen. “Euskaldun aktiboek behera egin dute, eta urtero pertsona berberak tiraka jardun arren, oso zaila egin zen”, adierazi du Eneritz Aranburuk. Belaunaldi berrien erreleboa behar du Orraittionez. “Nahiz eta erregistroan baja probisionalean emanda dagoen, talde bat animatuko baltiz egitasmoarekin aurrera jarraitzeko aukera osoa dauka”, dio Itziar Garitagoitiak. Nahi duenak eskuragarri du lekukoa hartzea.

Paul Bustindui



MALLABIKO ABESBATZA SANTA AGEDAN

Pasa den otsailaren 4an Mallabiko Mendibil abesbatza baserriz baserri arituzen Santa Ageda abesten Euskal Herriko ohitura herrian mantenduz. Intxaurrondo gastronomia elkarteak duen Zaporeak proiektura donatzea erabaki zen bertan jasotako dirua. Zapore solidarioak ekimenak Greziako Chioseko uhartean errefuxiatuei laguntzen die.



Modas Cande
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

ZK

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

174 LAGUN BILDU ZIREN VI. ZUHAITZ EGUNEAN

Martxoaren 19an Zuhaitz Egunaren 6. edizioa ospatu zuen Artarrai Mendi Taldeak. 174 lagun bildu ziren zuhaitzak landatzeko, tartean umeak, gazteak zein helduak, eta eguraldi bikainaz gozatu zuten.



FOLKEZ BLAI LEHIAKETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO

Irailaren 8tik 10era ospatuko da Folkez Blai lehiaketaren XII. edizioa, baina bertan parte hartzeko taldeek aurretik eman behar dute izena (maiatzaren 15a baino lehen, hain zuzen ere). Lau abestiz osatutako grabazioa bidali beharko dute Lobiano Kultur Gunera edo plopez@udalermua.net helbidera, eta epaimahaiak 6 finalista aukeratu ditu. Horiek izango dira irailean Orbe Kardinalaren plazan zuzenean joko dutenak. Emanaldiak entzun eta gero, epaileek bi sari banatuko dituzte: 3.000 eta 1.500 eurokoak, hurrenez hurren. Irabazleak, gainera, 2018ko Folkez Blai lehiaketan eta Getxofolken parte hartuko du talde gonbidatu moduan. Folkez Blai Ermuko Udaleko ekimena da, folk musikako herriko taldeekin lankidetzan antolatuta dagoena.

Euskal Birusak apirilaren 26an egingo du Batzar Orokorra

Euskal Birusa Elkarte Kulturalak apirilaren 26an (asteazkena) burutuko du urteko batzarrara. Bertan, 2016an egindako egitasmoei eta aurrekontuari errepaso egingo diote, eta 2017rako proiektuak eta aurrekontuaren aurreikuspena aurkeztuko da. Elkarteko bazkide guztiek hartu dezakete parte bilera horretan, hala nola bazkide izateko interesa duten ermuarrek ere. Lobianon izango da hitzordua, 19:00etan lehen deialdia, eta 19:15ean bigarrena. Bestalde, aurreko edizioetan bezala, Euskal Birusak Korrikako Kilometro bat erosi du Ermua eta Eibarko Bertso Eskolarekin batera. Lekukoa eramateko boluntarioak behar ditu, eta bazkideei deialdia egiten die. Interesa dutenek 688632874 telefonora deitu edo euskalbirusa@gmail.com helbidera mezua idatzi beharko dute.



Giroa tabernak irabazi du aurtengo Kazolatxo Lehiaketa

Giroa tabernako kazolatxo izan zen irabazlea martxoaren 13tik 19ra bitartean Ermuan ospatu zen Kazolatxo Lehiaketaren VII. edizioan. 28 taberne hartu zuten parte, eta maila altua erakutsi zuten epaimahaiaren arabera. Antolatzailea den Lobiano Gastronomia Elkarteak 12 finalista aukeratu zituen lehenik eta behin, eta ostiralean jakinarazi irabazlearen izenak: 1. saria Giroa tabernako Ajoarriero Giroa kazolatxoak jaso du; 2.a, berriz, Frankfurt tabernak prestatutako Zeus kazolatxoak. (Argazkia: Lobiano Gastronomia Elkarte).



Euskal Jaia ospatuko da apirilaren 1ean eta 2an

Badira 40 urte Ermuan lehen Euskal Jaia ospatu zenetik. Urteetan, Txindurri, Arkaitz eta Gure Ametsa taldeek antolatu dute berau txandaka, baina egun Txindurri Dantza eta Txistu taldea da martxan jarraitzen duen bakarra. Hortaz, eurek osatu dute urteurreneko egitaraua. Apirilaren 1ean, dantza-erakustaldia egingo dute plazan Gure Ametsa Dantza Taldeak eta Txindurrik (19:00etan), jarraian Larraindantza egingo da leku berean (20:00etan), eta erromeria eskainiko du Errebal taldeak (20:15ean). Domekan, apirilak 2, kalejira egingo dute bertako eta kanpoko taldeek (11:30etik 13:30era), dantza-erakustaldia plazan (17:00etan), eta erromeria Ein GO taldearekin (18:00etan). Egitaraua osatzeko honako hauen laguntza jaso du Txindurrik: Ermuko Udala, La Caixa eta Ermuko Merkataria eta Ostalarien Elkarte.



T XALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) ENKARGYAK 943 030 299

ileapaindegia

Silvia

peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474 688819336

Azken txanpan sartu dira Berbetan Jardunaldiak

Martxoaren 14an hasi ziren aurtengo Berbetan Jardunaldiak, eta apirilaren 4an burutuko da azken saioa. Egun horretan, elkarrizketa musikatua eskainiko dute Antton Telleria aurkezleak eta Izaro abeslari mallabitarrak.

- EKIMENA:
ELKARRIZKETA MUSIKATUA.
- PARTAIDEAK:
ANTTON TELLERIA ETA IZARO.
- NORI ZUZENDUA:
HERRITARREI ORO HAR.



Izaro abeslaria.

Antton Telleria aurrean,
Julen anaiarekin batera.

- EGUNA:
APIRILAREN 4AN, ASTEARTEA.
- ORDUA:
19:00ETAN.
- LEKUA:
LOBIANO KULTUR GUNEAN.



 **esanline**®



☎ 846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

💻 esanline.es

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es



DG

Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

 **enolimp**
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23

E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Korrikako aurkezpen jendetsua egin zen Mallabian

Martxoaren 17an Korrikako aurkezpen soziala egin zen Mallabian. Adarraren deiaz hasi zen ekitaldia, eta jarraian Korrikaren mezuaren zati bat irakurri zen hainbat hizkuntzatan: Maribi Carrillok euskaraz, Stuart Creaghek gaelikoz, eta Mihaela Zenikek errumanieraz. "20. Korrikak zurekin hitz egin nahi du. Euskara ezagut eta gurekin erabil dezazun hizkuntza baten alde egitea, finean, guztien alde egitea da. Baten eta batzuen munduaren alde. Kultura unibertsalaren alde. Hizkuntza-berdintasunaren aldeko jaira gonbidatzen zaitugu. Mundu unibertsalagoa sortzera. Bat egitera. Zuk egitera. Euskaraz".

Irakurketa honen ostean, mokadu gozoz gozatu zuten bertan bildutako umeez eta helduek. Horietako batzuk, gainera, Korrikako arropa, petoak zein txapak erosteko baliatu zuten aurkezpena.



Ermuko plaza jendez lepo egon zen Korrikako aurkezpenean

20. Korrikako aurkezpena txalaparta doinuarekin hasi zen Ermuan, eta jarraian Alboka Musika Eskolako ikasleek edizio honetako abestia kantatu zuten: *Zirkorrika*, bakarlarri eta guzti. Bukatutakoan, euskaltegiko zenbait ikaslek Korrikaren mezua zabaldu zuten hainbat hizkuntzatan: errumanieraz, guaraniz, katalanez, galegoz, wooloferaz eta euskaraz, jakina.

Antolatzaileen arabera, izugarritzko arrakasta izan zuen Korrikako *photo call*ak: "Kaltxango AEKren Facebookean argiratu ditugu argazki hauek, eta, ahal den neurrian, plaza jasotako helbide elektronikoetara bidaliko ditugu", azaldu dute. Ermuko Korrikan lekukoa eramango duten elkarrekin lagunekin ere atera zen argazkia.



Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Tipa-tapa, Korrika! ikuski-zuna eskaini zuten Ermuan martxoaren 24an. Saioa bukatuta, Euskaltegiko ikasleek eta euren seme-alabek lekukoa hartu zuten eta korrika egin zuten pailazoen batera.



Martxoaren 18an Bertso Desafiye egin zen Mallabiko Izar Gorri Elkarteetan: Tolosa-Gabiria. Gazte Taldeak antolatutako norgehiagoka horretan tolosaldeakoak izan ziren garaile.

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidia 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14



Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

EGITARAU KULTURALA

ERMUA

Martxoaren 29an, 81 amama dokumentala eta solasaldia. 19:00etan Lobianon, Ermuko Emakumearen Udal Kontseiluak antolatua.

Martxoaren 31n, Korrika dokumentala Eskilarapekon. Gazte Asanbladak eta Nushuk antolatua.

Apirilaren 4an, elkarriketa musikatu: Antton Telleria eta Izaro. 19:00etan, Lobianon. Berbetan Jardunaldiak.

Apirilaren 7an, Korrika Eguna:

15:15ean Korrika txikia. Anaitasuna Ikastolak, Eskolabari Ikastetxeak, Ongarai Eskolak, San Lorenzo Eskolak eta Antxitxiketaneak antolatua.

16:30ean txokolatada. Alargunen Elkartek antolatua.

17:00etan zirko tailerra. Ermuko Udalak eta Antxitxiketaneak antolatua.

19:00-21:00ak bitartean erromeria Luhartz taldearekin, plazan. Udal Euskara Sailak antolatua.

22:15ean Korrika.

23:00etan Luhartz.

Maiatzaren 5ean, Francoren biolabari gutuna antzerkia. 22:15ean Antzokian. Udal Kultura Sailak antolatuta.

MALLABIA

Martxoaren 31n, kontzertua. 19:30ean, Herriko Tabernan. Txaparrada Kultur Elkartek antolatua.

Apirilaren 7an, Korrika Eguna:

15:00etan Korrika txikia. Mallabiko Eskolak antolatua.

17:00etan Gazte Alai dantza taldea.

17:30ean txokolatada. Guraso Elkartek antolatua.

18:00etan zirko tailerra. Satxibu Begirale Taldeak antolatua.

19:00etan musika plazan.

20:00etan pintxo potea Mallabiko tabernetan.

Apirilaren 8an, eskolarteko Futbol-Korrika. 9:15ean Mallabiko Frontoian. AD Mallabia FTK antolatua.



Korrikaren bukaeran parte hartzeko autobusa ipiniko da

XX. Korrikaren bukaera apirilaren 9an izango da, Iruñean. Ermutik irtengo den autobusa antolatuko du Kaltxango AEK-k: 9:00etan Agirre Kirolak dendaren aurrean dagoen geltokitik irtengo da, eta 20:00etan bueltatu. Izena eman nahi dutenek AEK Kaltxango Euskaltegira jo beharko dute.



Martxoaren 19an eskubaloi-jolasak burutu zituen Errotabarri Eskubaloi Taldeak plazan.

Bobby Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

GERALEKU

Paco autobus geltokiaren ondoan gaude

Bar Gerales Taberna

hanigan's Irish Tavern

Gosari, bazkari eta aforiak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

1001 mundu

1001 ele

1001 gozamen

IRAKURRI
GOZATU
OPARITU

1. 

Hartu euskarazko liburu bat liburutegitik, eraman etxera eta..., gozatu bidaiaz.

2. 

Irakurritakoan itzuli, irakurle-fitxa bete eta jaso zure erosketa-txekea liburutegian.

3. 

Erosi beste liburu bat %35 merkeago zure txeketa erabiliz.

4. 

Oparitu erositako liburua; senide, lagun, lankideren bati..., edo zeure buruari, merezi duzu eta.

“Medikuak jarabe bat eman zidan, ‘zakur-etzula’ kentzeko. Gaur ‘zakur-etzula’ kentzeko potea hartu dut. Bizilagunen txakurra, Lupus, bere nagusiarekin mendira joan dela baliatuz, haren ur ontzian hustu dut potea. Aurtengo neguan ez du katarrorik hartuko Lupusek. Orain gurasoak haserre daude, amak ez du ulertzen nola aitak guztia galtzen duen. Nik eztul egiten dut niri begiratzen didatenean”.

Anekdotak. RUIZ, Ruben Ruiz. 4-8 urtekoentzat.

“Badaukat gogoia hamar urte betetzeko. Amonak dio orduan etorriko zaidala entendimentua. Nik ez dakit zer den hori, baina badaukat gogoia zerbait izateko. Gela handi bat ez badaukat etxean, ba, gutxienez izan dezadan entendimentua. Eta ez Olentzero entendimentuz jantzia delako, hain zuzen. Izan ere, Olentzero ez zait batere gustatzen: hark osaba Pietrok bezala ditu azazkalak, beltzak eta zikinak. Behin osaba Pietrok egin zuen Olentzerorena: bera bezala jantzi eta herrian barrena ibili zen ardoa doan edaten eta tabakoa doan pipatzen. Utikan Olentzero!”.

Lesterren logika. CANO, Harkaitz 12-16 urtekoentzat.

“Duela urtebete, haizea gaizto zebilen Venezian. Eta behar nuen argazkia ez zetorren. Argialetxean usak nahi zituzten, San Markos plazan, Italiako gidaliburuaren azalerako baina usak ez ziren ausartzen sarrak astintzen zituen haize zurrunbiloan sartzera eta kamera eskuan zain nengoen, telefonoak jo zuenean. Lana eskaintzen, Samuel, Eliasen aspaldiko lankidea. Golkoko gerraren ostean agurea erretiratu egin zen eta berak gora egin zuen egunkarian, zuzendaritzaraino. Gerrarekin bezala, harekin ere nazkatuta, bidaien gehigarriaren ardura hartu zuen eta orain argazkilari bila ari zen. Ea nondik nenbilen, banuela Bilbora itzultzeko garaia, Eliasek kontaktzen ziola nire lanen berri, bidaltzeko argazkiren bat”.

Nora ez dakizun hori. JIMENEZ, Irati. 16 urtetik gorakoentzat.

“Bazen hodei bat, txikieta txikia, baina horrek ez dio axola, hodei txikiak eta handiak berdin-berdin bizi baitira zeruan. Hodei txiki hura poeta zen, baina horrek ere ez dio axola, zeren hodei guztiek baitakite idazten eta poemak egiten eta marrazten, zero osoa berentzat hartuta. Hodei txiki poeta hura txurietan txuri zen, baina horrek ere ez dio axola, nahiz eta hodei musutxuriak gorago bizi diren hodei muturbeltzak baino”.

Ur: Erori nahi zuen tanta. IGERABIDE, Juan Kruz. 0-4 urtekoentzat.



“Aukeren artean dago Edortaren aita. Edortaren gurasoak bananduta daude aspaldi, eta Edortaren aita oso-oso sinpatikoa da. Gainera, bere etxean sofan afaltzen dugu. Nire etxean debekatua dago hori egitea.

- Bai zera! —esaten du amak—. Gero ezinezkoa da janari arrastoak sofako tapizeriatik kentzea.

Edortaren aitak pizza eta freskagarriak ematen dizkigu afaltzeko. Horregatik amari ez dio grazia handirik egiten Edortaren etxera joaten naizenean afaltzera.

- Nahikoa hiperaktiboa zara zu lehendik ere, eta ez zaizu komeni freskagarriak hartzea —esaten du.

Nik ez dakit zer den hiperaktiboa izatea, baina ez du ona izan behar, freskagarriak hartzea eragozten badizu”.

Nobio bat nire amarentzat. SUAREZ, Castillo. 8-12 urtekoentzat.

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

Caperos

Pinboak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitarkeoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

Aner Gorrotxategi, *El Conquistador del Caribe* saioko parte-hartzailea:

“Bizitzako esperientzarik onena izan da”

Ermuan jaioa duela 34 urte. Arriaundi okindegian ari da aspalditik lanean eta azkenaldian, ETB2ko *El Conquistador del Caribe* programan parte hartu duenetik, oso ezagun egin zaigu Euskal Herriko txoko guztietan.

- **Nola bururatu zitzaizun castingera aurkeztea?**

Laugarren aldia zen castingera aurkezten nintzela. Betidanik izan dut gogo eta grina saioan parte hartzeko eta halaxe aurkeztu nintzen.

- **Aukeratu izan zinela jakin zenuenean...**

Ezin nuen sinetsi! Negrerez hasi nintzen!

- **Etxekoek zer zioten?**

Ea zoratua ote nengoen, ba ote nekien nora nindotan...

- **Non eta noiz burutu zen saioaren grabazioa?**

2016ko azaroan eta abenduan izan zen, Kolonbiako La Guajira oihanean. Nik guztira 11 egun pasa nituen bertan.

- **Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Itzela, ez daukat hitzik bizi izandakoa deskribatzeko! Izan dudana bizitzako esperientziarik onena izan da inongo zalantzarik gabe!

- **Zer egin zitzaizun gogorrena?**


Kideren batekin egunero hartu-eman.

- **Nola gogoratzen duzu programa utzi behar izan zenuen eguna?**

Pena handia hartu nuen, baina nire asmoak eta helburuak beteta, oso pozik.

- **Anekdotaren bat?**

Itzulera Kolonbiako aireportuan zain nengoela, azala eguzkiak erreta eta moskitoen ziztadez josita nengoen. Ume bat begira nuen adi-adi eta hala esan zion bere aitari: “Aita gizon hori gaixorik dagoela uste dut”. Hortik



atera kontuak ze itxurarekin bueltatu nintzen!

- **Itzulera zer moduzkoa izan zen?**

5 egun eman nituen ospitalean, hango urek eragin dako kalteen ondorioz.

- **Programan nola ikusi duzu zure burua?**

Hasieran pixka bat arraroa egin zitzaidan nire burua ikustea, baina ohitu nintzen eta ondoren oso gustura.

- **Ospea etorri zaizu bapatean.**

Itzela izaten ari da bizi izaten ari naizen guztia! Dendara etortzen zaidan jendea, komunikabideetatik deiak, elkarrizketak... Gain hartu dit guzti honek.

- **Fans talde bat ere sortu omen zaizu...**

Tolosan sortu da taldea. Facebook bidez jarraitzen naute.

- **Su ta Garrek eta Pablito Berasalucek ere omendu zaituzte...**

Ikaragarria izan da beraiengandik jaso ditudan esker ona eta babesa.

- **Aurrera begira zein asmo?**

Eguneroko nire lanari eutsi eta bestea? auskalo! Bizitzan ez dira halakoak askotan gertatzen eta momentuan uneaz gozatzen ari naiz, nor naizen eta non naizen argi izanda.

Asier Ibaibarriaga



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Ervailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

DROGETEN ITTURRI

Publizitatea:

943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

ANA LARRONDO

- Gazte garaiko ze oroitza-pen duzu?

Garai oso grisak izan zirela. Errepresio handiko garaiak, manifak eta atxilotetak ziren nagusi.

- Nondik datorkizu militantzarako grina?

Etartetik. Gurasoak ere abertzaleak ziren. 15 urterekin Periko Solabarria ezagutzeko aukera izan nuen.

- Momentu berezi bat?

Askatasunaren aldeko martxa amaieran, 1977an Iruñean zaldiekin poliziak egindako karga.

- Erizain ikasketak egin zituen...

1975ean Basurtoko ospitalean egin nituen, eta handik 4 urtera Mallabian nintzen lanean.

- Eta geroztik hor zabil-tza...

1999ra arte ordezkot lanean ibili nintzen, baina urte horretan plaza atera nuen.

- Aldaketa handia Bilbotik Mallabira?

Erraz moldatu nintzen. Baserri giroa, natura... horrek ere asko erakarri izan nau betidanik.

- Zure bikotea Eugenio Aranburu "Txo", nola ezagutu zenuen?

Nire lagun baten laguna zen eta hala hasi ginen.



Bilboko Uribarri auzoan jaioa. 3 ahizpa eta 2 neben artean bera da bigarrena. 1979an Mallabira etorri eta geroztik hemen bizi da. Erizaina lanbidez, langileen eskubideen alde makina bat borrokaldi egindakoa. Feminista eta ezker abertzaleko militantea aspalditik.

- 20 urte pasa berri dira hura ere hil zela...

Oso momentu gogorak izan ziren niretzat. Haritz semeak 5 urte besterik ez zituen, handik gutxira bere anaia "Indio"rena... Baina aurrera egiten jakin izan dugu.

- Nolako zen "Txo"?

Oso ezkertiarra. Langilea eta buruz ere oso argia. Analisisirako gaitasun ika-

ragarria zuen. Haritz semeak ere baditu bere zenbait dohain.

- Lanetik kanpo zer duzu gustuko?

Lagunartean trago batzuk hartzea eta batik bat irakurtzea.

- Miresten duzun pertsonaren bat?

Anna Gabriel CUP-eko ki-dea eta Irantzun Varela.

- Euskal Herriko txoko goxo bat?

Laga eta Elantxobeko portua.

- Zerk jartzen zaitu sutan?

Hipokresiak eta faltasue-riak.

- Zerk galarazten dizu loa?

Oso inguruko arazoek.

- Martxoaren 8a edo Maiazaren 1a?

Biak eta ahal bada egunero-ko ekinean. Hemen egun bateko ospakizunek ez dute ezertarako balio!

- Defekturen bat?

Gauzak aurpegira eta zuzenean esaten ditudala eta sarritan horrek hase-rra sortzen duela. Jenoia duen pertsona naiz ere.

- Bete gabeko ametsik?

Karabana bat hartu eta herriz herri bidaiatzea. Uruguay edo Kubara, adibidez.

- Jateko plater bat?

Patatak errioxar erara.

- Bizitzarako lema?

Iraultza norberarengan hasten da.

- Abesti bat...

Xalbadorren heriotzean.

- Etorkizunari zer eskatzen diozu?

Amnistia eta askatasuna.
Asier Ibaibarriaga

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es

egolek

electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Zu Eibarrera eta ni Holanda, Alemania edo Finlandiara!

Uni Eibar-Ermua ikastetxeko informatika zikloek Holandatik etorritako bi ikasle berri dituzte. Hiru astetarako etorri dira, JAVA eta PHP programatzeko lengoaiak hobeto ikasi asmoz. Gure ikastetxea EMEU (Engineering Mobility in Europe) proiektuaren barruan dagoenez, Finlandia, Alemania, Danimarka, Erresuma Batua eta Holandako ikasleak hartzeko gai da. Aldi berean, gure ikasleak bidali ditzakegu herrialde hauetara bi edo hiru astetarako, ikasi eta enpresetan praktikak egiteko. Hizkuntza aldetik ere ez dago arazorik, aurten informatikako zikloetako modulu batzuk ingelesez irakasten hasi baikara.



Ikasle trukean Toulousen

Mugak gaintuz, Toulouse (Frantzia) ezagutzeko aukera izan dute Uni Eibar-Emuko Merkataritza Jarduerak zikloko ikasleek. Lanbide Heziketako Pyrene FP truke-programari esker, bost egun igaro dituzte bertan martxoaren hasieran, Lycee Raymond Naves institutuko ikasleekin.

Hiria eta institutua ezagutu, eta bertan hain ezaguna den *pastel* izeneko landarearen pigmentua ezagutu zuten Terre Pastel museoan. Gainera, Le Jardin d'Elen lorategira bisita egin zuten, eta bioletekin eginiko produktuak ezagutu zituzten. Halaber, ikasleek aukera izan zuten komertzioetan praktikak egiteko.

Sekulako esperientzia izan da eta martxoaren bukaeran bertako ikasleak edukiko ditugu gurean, Euskal Herria ezagutu eta gure dendetan praktikak egiteko.

Pyrene FP truke-programaren helburu nagusiak dira gaitasunak indartu eta Pirinio mendilerroan dauden lurraldeen inklusioa.





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 ☎ 943 17 47 44



san pelayo
 clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º
 Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA



Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

 **Egokitutako burua garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12



SAGARDUI
 poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



KRABI

Ileapaindegia
 Estetika

Tel: 943 03 17 56



Diputazio, 5
 ERMUA

Fideltasun eza bikote harremanetan

Fideltasun eza kontzeptu nahiko subjektiboa da, eta modu desberdin askotan uler dezakegu, baina askorentzat eta sinplifikatuz, bikotea ez den pertsona batekin sexu harremanak izatea da.

Kalean esaten den moduan adarrak dituen engainatua sentitzeaz gain, mina eta sufrimendua ere jasango ditu; baina berez fideltasun eza ez da mingarria, mingarria bihurtzen da bestea enteratzen denean.

Badirudi bikote harreman bat hasten dugunean, pack horrek fideltasunaren presuntzioa dakarrela, hitzik egin gabe gauzatzaren den hitzarmena da eta biak fidelak izango direla suposatzen dugu fedeko gertakari bat izango balitz bezala (hemendik dator *fidela* hitza). Esklusibitate honen

atzean bikotearen gorputzaren monopolio erotikoa dago: bestearen genitalak pribatizatzen ditut, hau da, nireak dira. Inor ezin da gerturatu, eta norberak ez duela egingo ere suposatzen du besteak...

Bikote batzuetan, bestearen desira ere nirea da, eta gaizki ikusten da bikoteak beste batzuegan desira sentitzen badu. Hau gertatzen da, maitasuna beste inorengan desira ez sentitzearekin lotzen dugulako. Esan genezake orduan desiran fideltasun eza dagoela?

Desirak eta fantasiak promiskuak dira. Adibidez, nire burua irudikatu dezaket nire bikotekidea ez den beste batekin harremanetan eta bere horretan utzi, aurrera pausurik eman gabe.

Bikoteek gai horiei buruz hitz



Nahia Rojo

Psikologoa eta Sexologoa.

'Desirak' Sexologia eta Generoa

egitea eta itunetara heltzea garrantzitsua da. Gainera hitzartutakoak ez du zertan bizi guztirako izan behar. Gu aldatzen garen bezala, gure harremanak ere garpena izango du, beraz, itunak berrikustea ere komenigarria litza-teke.

Badaude harremana irekitzearen akordioa egiten duten bikoteak, beste pertsona batzuekin sexu harremanak izanez. Beste batzuk, ordea, liberalak dira eta bikotea trukutzen dute.

Kasu horietan fideltasun eza dagoela esan genezake? Itunak argi badaude leialak ere badira: euren itunei, bikoteari eta norbere buruari.

“ Badirudi bikote harreman bat hasten dugunean, pack horrek fideltasunaren presuntzioa dakarrela ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukua 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEN KONTROLAK
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).



Martxoaren 15ean
Zorionak Lucia!!!
Espero dugu oso ondo pasatzea egun honetan!!! Asko maite zaitugu!!!



Martxoaren 12an
Zorionak maittia!
7 urte! Amama, aitite, izeko, osaba eta Iratiren partez!
Amz



Martxoaren 18an
Zorionak Ander zure zazpigarren urtebetetzean!!
Musu handi bat etxekoan partez.



Apirilaren 19an
Zorionak Diana!!!
Ondo pasa zure urtebetetzean.
Muxu handi bat Lucia eta Oscarren partez.
Maite zaitugu.



Apirilaren 15ean
Zorionak Aritz zure 12. urtebetetzean.
Muxu handi bat Lucia, Diana eta osaba Oscarren partez. Ondo pasa.



Martxoaren 29an
14 musu handi Aitzol eta etxeko guztion partez. Ondo pasa zure egunean.



Martxoaren 28an
Zorionak Maite etxeko guztion partez. Musu handi bat.



Apirilaren 1ean
Zorionak Aitzol, Jone eta etxeko guztion partez. Musu handi bat.



Apirilaren 8an
Zorionak Eider!
Oso ondo pasa zure eguna, 8 urte zoragarri betetzen dituzu-eta!!! Musu handi bat familiaren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Apirilaren 10a.**

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia


IZASKUN TXURRUKA



Goienkate 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com



TORREKUA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekuakalea 2 - Ermua
943 17 69 29

**MALLABIA
1985**

1985. urtean ospatu zen 4. Korrika, Atharratzetik Iruñara maiatzaren 31tik ekainaren 9ra.

Argazki hau Mallabiko plazan atera zen. Bertan agertzen dira, besteak beste: Aitor Uribe, Jose Martin Gallastegi, Asun Abascal, Jesus Mari Telleria, Juanito Uribarri (Berriz), Cruz Astigarraga, Felix Urribarri (Berriz), Eduardo Astigarraga, Mertxe Ruiz, Aitor Txurruka, Felipe Zelaieta eta Roberto Txurruka.

**ERMUA
1957**

Martxoaren 2an 60 urte bete dira Karmele Isasi-Isasmendi Olañeta eta Manolo Conde Babarro ezkondu zirela. Erretratuan emaztegaia bere solteratuko despedidan, lagunez inguratuta. Atzean, tente, Aurora Etxaburu eta jarrita, ezkerretik eskumara Trini Aranberria, M^a Luisa Izagirre, Maritxu Malkorra, Karmele bera, Felisa Ormaetxea, Edurne Idigoras eta Jesusa Izagirre. Mahai gainean dauden maraka moduko horiekin, bazkal ostea ez zen zarata bakoa izango!

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42

Duela 20 urte inguru sortu zen botiloia-aren fenomeno, eta leku gehienetara hedatu da. Adituek diotenez, 14 edo 18 urte bitarteko gazteen %57 astebururo elkartzen da litroak egiteko asmoz (tartean gazteagoak ere egoten dira). Ermuko gazteek, Ermua Opinan irakurri daitezkeenez, San Pelayo eta Aldapa auzoak aukeratzen dituzte botiloia egiteko.

**- Badakizu Ermuan botiloia egiten den? Non?
- Nola kontrolatuko zenuke?**



Ez dakit egiten den, baina seguru baietz, zoritxarrez. Oso gai zaila da, hezkuntzarekin oso lotuta dagoena. Gazteek jakin behar dute badaudela beste modu batzuk dibertitzeko. Denon arazoa dela uste dut, eta guztiok sartu beharko genuke eskua: eskolek, familiek... gizarte osoak.

Esther Urueña, 38 urte



Ez dakit, baina ni ez nago botiloia-aren kontra. Gizartean eta kultur arloan parte hartzeko bideak eman behar dizkiegu gazteei, eta batez ere euren beharrak asetzeko eta elkartzeko bideak. Baita ere botiloia egiteko, horren beharra badute, baina beti ere bizi-lagunekin elkarbizitzen.

Braulio Montequin, 59 urte



Duela 5 urtera arte Eibarren bizi nintzen, eta han Ermuan baino botiloia gehiago egiten zen. Uste dut gazteak direla irtenbidea topatu behar dutenak, alternatibak. Ideia oso onak dituzte, eta dibertitzeko beste modu batzuk topatzeko gai dira.

Inma Stitou, 33 urte



Hilabete egon naiz Ermuan, eta ez dut halakorik ikusi. Argentinakoa naiz, eta baliteke bertan ere botiloia egitea, baina ez da ohikoa. Ez zait ondo iruditzen, eta naturarekin kontaktua duten kirolen aldeko apustua egingo nuke beraz saihesteko. Musika eta kultura ere bultzatuko nituzke.

Santiago Toran, 30 urte



ZINEA

Hilak 3ra:
"Gold" +
"Es por tu bien"

8tik 10era:
"El Fundador" + "El sr.
Henry comparte piso"

15etik 17ra:
Zona hostil" +
"Incierta gloria"

22tik 24ra:
"Moonlight" + "El bar"

29tik 1era:
"Ghost in the sell, el
alma de las máquinas"
+ "Locas de alegría"

Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 6:
"La chica desconocida"

Hilak 13:
"Psiconautas, los niños
olvidados"

Hilak 20:
"El viajante"

Hilak 27:
"Crudo"

Ermua Antzokian.
20:30ean.

**UMEENTZAKO
ZINEA**

Hilak 2:
"La vida de Calabacín"

Hilak 9:
"Savva, corazón
guerrero"

Hilak 16:
"Teresa eta Galtzagorri"

Hilak 23:
"Los Pitufos 3D"

Hilak 30:
"El bebé jefazo"
Ermua Antzokian.
17:00etan.

MUSIKA

Hilak 1:
Abesbatzen kontzertua:
Andra Mari (Zornotza),
Ohiandi (Otxandio) eta
Pispillu (Ermua).
20:45ean. Santiago
elizan. Doan.

Hilak 5:
Kontzertua: Alboka
Musika Eskolako
ikasleak. 19:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera dohainik.

Hilak 7:
Kontzertua: Morgan.
22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10€

ANTZERKIA

Hilak 28:
"Héroes", Iñaki
Miramón, Luis Varela
eta Juan Gearekin.
22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15€

DANTZA

Hilak 1:
Euskal Jaia: dantza
erakustaldia,
Larraidantza eta
erromeria.
19:00etatik aurrera.
Orbe Kardinalaren
plazan.

Hilak 2:
Euskal Jaia: kalejira,
dantza erakustaldia eta
erromeria.
11:30etatik aurrera.
Orbe Kardinalaren
plazan.

ERAKUSKETA

Hilaren 9ra arte:
Margoa: Eduardo
Alsasuaren lanak.
Lobiano Kultur Gunean.
18:00etatik
20:00etara.

**UMEENTZAKO
EKITALDIAK**

Hilak 8:
Haurrentzako ipuin
kontaketa ingelesez.
17:30ean.
Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 22:
Haurrentzako ipuin
kontaketa. 17:30ean.
Lobiano Kultur Gunean.

BESTELAKOAK

Hilaren 3tik 9ra:
Andaluziako Zentroaren
kultur astea: hainbat
ekitaldi. San Pelaio
plazan eta Andaluziako
Zentroan.

Hilak 7:
Korrika eguna: hainbat
ekitaldi. Orbe
Kardinalaren plazan.

Hilak 23:
Antzinako kotheen
topaketa
(Gaztela-Leongo eguna).
11:00etatik aurrera.
Hiriko kale eta plazetan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

**PRO
arraindegia**



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com




**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



Jon Arrizabalaga

Gernika. Lidergo Ekintzailea
eta Berrikuntza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · APIRILAK 27

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO · APIRILAK 29

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 4

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · APIRILAK 1

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · APIRILAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO · APIRILAK 29

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORITZA · APIRILAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA · APIRILAK 6

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center


DONOSTIA · MAIATZAK 13

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak	- Manparak
- Ostalaritzarako muntaiak	- Segurtasun pertsianak
- Pertsianak	- Pertsiana dekoratiboak
- Instalakuntzak eta konponketak	- Estoreak
- Motorizazioa	- Eitxo-sareak

Tailerra:
Zoarreko Buelta 2
943 17 86 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXE-BIRGAITZEAK

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOKAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Erakina Zebarkalea, 36, 3º 48200 Ermua - Bizkaia

ETXETRESNAK

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

BETA

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaukeko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 beheka (Mallabia)
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com